

# AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

## AURKIBIDEA:

1. ZERBITZU PUBLIKOEN MURRIZKETA BERRIAK
2. YPFren NAZIONALIZAZIOA: ENPRESA PRIBATU BATEN INTERESAK ARGENTINARKO HERRITARREN INTERESEN AURKA
3. NAZIOARTEKO DIRU FUNTSA: "MUNDUKO EKONOMIAREN IKUSPEGIA, 2012" INFORMEA
4. BURTSAN KOTIZATZEN DUTEN ENPRESETAKO EJEKUTIBOEN ORDAINSARIEK %7,4KO IGOERA IZAN ZUTEN 2011AN
5. KANPO ZORRA, PRIBATUA BATEZ ERE
6. OSASUNEAN GASTU PUBLIKOAN, EUROPAKO AZKENAK
7. PROPOSAMENA: ERREFERENDUMA

**1. ZERBITZU PUBLIKOEN MURRIZKETA BERRIAK**

Apirilaren 20an gobernu espainiarrak murrizketa berri eta oso larriak adostu zituen hezkuntzan eta osasunean. Sail hauetan adostutako neurriak gastu publikoa 10.000 milioi eurotan murrizteko helburua dute (BPGd-ren %1a).

Murrizketa hauen ondorio zuzena, hezkuntza eta osasungintza sistemaren erabateko deuseztea da, gizartean eragin zuzena dutelarik. Nafarroako Gobernuak murrizketekin bat datorrela adierazi du. Eusko Jaurlaritza, hezkuntzari dagokionez, murrizketen aurka dago baina osasun arlokoekin portzentai altu batean bat datorrela adierazi du.

**➤ HEZKUNTZA**

Hezkuntzako murrizketak jasotzen dituen Errege Lege-Dekretuak honako neurri nagusiak aipatzen ditu, administrazio guztietarako oinarri-lega gisa:

- Unibertsitate mailakoa ez den hezkuntza
  - Haur eta lehen hezkuntzan gutxienez 25 eskola-ordu finkatzen dira eta gainontzeko mailatan 20 ordu.
  - 10 eskola-egunetik beherako irakasleen baja aldiak ez dira ordeztuko. Hauek zentro bakoitzeko baliabideekin estaliko dira.
  - Gela bakoitzeko ikasle kopurua %20a gehitzen da. Lehen hezkuntzan 30 ikasletan ezartzen da maximoa eta bigarren hezkuntza 36 ikasletan.
  - Aurreikusitako 2.000 orduko hezkuntza zikloen ezarpena, 2 urtez atzeratuko da.
  - Bi batxilergo mota eskaini beharra

ezabatu egiten da. Hezkuntzako Administrazioek erabakiko dute zentro bakoitzeko eskaintza.

**- Unibertsitate hezkuntza**

- Tasa igoera. Lehen matrikularen kostuak, tituluen kostu errealaren %15 eta %25 bitartekoa izango da, bigarren matrikula %30 eta 40 bitartekoa, hirugarrena %65 eta 75 bitartekoa eta laugarrena %90 eta 100 bitartekoa.
- Irakasleen jarduera-erregimena ikerkuntza proiektuak izan edo ez izatearen arabera izango da.
- Graduak tituluetan gutxieneko ikasle kopurua exijitzen da.
- Enpresei unibertsitate-tituluetan sarrera ematen zaie, pribatizazioari bidea emanez.

**➤ OSASUNA**

Osasungintzako murrizketa esanguratsuenak dira:

- Pentsiodunek sendagaien %10 ordainduko dute eta pertsona aktiboek %50a. Arau berri hau bi hilabetetan sartuko da indarrean.
- Atzerritarrei osasun-arreta mugatuko zaie. Argi dago, paperik gabeko inmigranteei osasun zerbitzua galarazi nahi dietela.
- Zerbitzu kartera komuna ezarri, osasun-zerbitzu publikoek ematen duten arreta murrizte aldera.
- Erosketa plataforma zentralizatu bat sortuko da.
- Giza-baliabideen ordenazioa.
- Politika soziosanitarioak, ospitaletako gaixoak egoitzetara eramatea eragingo du.

### ➤ TELEBISTA AUTONOMIKOAK PRIBATIZATZEKO BULTZADA

Lege proiektu bat onartu dute telebista autonomikoen kudeaketa moduak malgutzeko. Horrez gain, izaera finantzieroa duten neurri batzuk bete beharko dituzte:

- Urteko gehieneko gastu muga, gainditu ezinekoa.
- Urte batean izandako galerek, hurrengo urteko gastua kopuru berean murriztu beharko dute.
- Erkidego bakoitzak telebista publikoaren ikuskaritza finantzieroa egin beharko ditu kontrol sistemak eratze aldera.

ELarentzat Rajoyren gobernuak plazaratu dituen gastu murrizketekin atzeraldi ekonomikoa areago larrituko da, gizarte-babes maila murriztu eta langabezia gehituko da. Azken urteotan jendearen erosteko ahalmena asko murriztu da; enplegua erruz suntzitzen ari da; pobrezia gora egin du, eta krisia gero eta larriagoa da, gizartearen kalterako eta kapital zein merkatuaren onerako.

Murrizketa hauek erabateko eragin kaltegarria dute osasun eta hezkuntza publikoaren kalitatean. Murrizketa hauek azken hamarkadetan Hego Euskal Herriko zerbitzu publikoen aurka egin den erasorik bortitzena dira.

Eskumenetan berriro ere eraso jo dute. Espainiar gobernuak murrizteko erabakiak osasungintzan eta hezkuntzan inposatu nahi ditu, biak ere bete-betean Erkidegoei dagozkien arloak izanagatik.

ELAK HEHko erakunde guztiei exijitzen die murrizte-politikak bazter ditzatela eta zerbitzu publikoak garatzeko konpromisoa har dezatela. Murrizketekin ados ez badaude,

esateaz gainera, ez ditzatela aplikatu; euskal erakundeen eskumenak defenditu behar dituzte. HEHko erakundeetako arduradunek aurpegi bikoitza dute; batetik prentsaren aurrean Ongizate-Estatuaren aitzindari gisa agertzen dira, baina bestetik zerbitzu publikoetan murrizketak aspaldian ari dira aplikatzen azken erabakiok ezagutu baino askoz gehiago.

ELAK mobilizazio sindikal eta sozialari eutsiko dio, otsailaren 25eko manifestazioaren eta martxoaren 29ko greba orokorraren ildoari jarraiki. Gure asmoa murrizketei aurre egitea da, eta eskatzea Hego Euskal Herriko administrazio guztiei ez ditzatela aplikatu; goitik behera aldatu behar dituzte zerga- eta aurrekontu-politikak. Horrela egin ahal izango dituzte hain beharrezko diren enplegu-politikak eta gero eta larriagoak diren beharrezko sozialak: gizarte-prestazioak, osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, ingurumena, etab. Politikak aldatu beharra gero eta premia handiagoa ari da bihurtzen.

### [ELAren balorazioaren dokumentua](#)

### **2. YPFren NAZIONALIZAZIOA: ENPRESA PRIBATU BATEN INTERESAK ARGENTINARKO HERRITARREN INTERESEN AURKA**

YPF enpresa publikoa izan da 1922an sortu zenetik 1992an pribatizazio prozesua hasi zen arte. Prozesu hau 1999an bukatu zen Repsolek YPFren akzioen gehiengoa lortu zuenean (gaur egun %57 inguru).

Titularitate aldaketa hau Menem-en Gobernuak bultzatu zuen, eta orduan egin ziren egiturazko aldaketa sakonen artean kokatzen da. Orduan erretiro planak pribatizatu, eta lan-merkatuko erreformek eta

bestelako aldaketek 2000 urteko krisi gogorrera eramán zuten Argentina.

Gutxiengo baten mesedetan egiten diren politika neoliberal hauek, gaur egun European aplikatzen ari direnak dira, jendearen lan-eskubideak eta eskubide-sozialak suntsituz.

Rajoyren gobernuaren jokaerak eta nazionalizazioaren aurka daudenek, argi uzten dute botere politikoa enpresa handien menpe dagoela. PP-ren gobernuak Repsol multinazionala babesten du, zeinaren jabetzaren gehiengoa, Estatu espainiarretik kanpo dagoen gainera.

YPFren nazionalizazioa egin daitezkeen eta egiten ari diren politiken adibidea da, neurria kritikatzén duten Gobernuek aurrera eramaten ari diren murrizketei alternatiba emate aldera. Gizartearentzat politika onuragarriak dira, kasu honetan argentinarentzat. Rajoyren gobernuak, horren orde, enpresa pribatu baten interesak lehenesten ditu.

[Jose Riganen \(CTA\) elkarrizketa irakurri](#)

### **3. NAZIOARTEKO DIRU FUNTSA: "MUNDUKO EKONOMIAREN IKUSPEGIA, 2012" INFORMEA**

NDF-k bere informean dioenez, Estatu espainiarrak ez du lortuko Bruselakin adostutako defizita izatea. Aurreikuspenen arabera, Estatu espainiarrak ez du 2013rako adostu zuen %3ko defizita 2018rarte lortuko. Desoreka hau 2012an BPGd-ren %6koa izango da eta 2013an %5,7koa, hots, adostutakoa baino nabarmen altuagoa.

NDF-ak bere informean Gobernu espainiarraren 2012rako aurrekontuak

aztertzen ditu. 2011an hartutako neurrien osagarri dira, eta kontutan hartzen du %5,3ko defizitaren helburua.

NDF-ak ontzat jotzen ditu gobernuak hartu dituen neurriak baina sakonegi nabarmendu gabe aipatzen du neurri hauek ez zirela horren gogorak izan behar. Dударik gabe, hau hipokresia hutsa da.

Ekonomiaren desazelerazioa kontutan hartuta murrizketa neurrien eragina oso larria izatera iritsi daiteke eta lortutako emaitzak nahi ez izandakoak izatea, esaterako, interes tasen gehitzea, zorra eta BPGd-ren erlazioa eskatea, etab. Ikusten denez, langabeziari ez diote garrantzi nahikoa ematen.

Bestalde, NDF-aren aurreikuspenen arabera, estatu espainiarreko langabezi tasa %24,2ra iritsiko da 2012an, 2013an %23,9ra jaisteko. Inflazioa berriz, %1,9ra iritsiko da aurten eta %1,6ra hurrengoan.

[Ikusi Informearen laburpena](#)

### **4. BURTSAN KOTIZATZEN DUTEN ENPRESETAKO EJEKUTIBOEN ORDAINSARIEK %7,4KO IGOERA IZAN ZUTEN 2011AN**

Krisiak guztioi eragiten digula sinestarazi nahi digute. Baina hau ez da egia. Espainako burtsan kotizatzen duten enpresen datuen arabera, 2011an, beraien 905 goi karguen ordainsariek %7,4 egin zuten gora, enpresa horietan soldatek izan zuten batezbesteko igoeraren nabarmen gaintetik.

IBEX 35eko enpresak bakarrik kontuan hartzen badira, beraien goi karguen batezbesteko ordainsaria 810.000 eurokoa izan zen iaz. Diru gehien jasotzen dutenak 5 kargu hauek dira:

- Inditexeko presidentek, Pablo Islak, 20,3 milioi euro jaso zituen iaz.
- Santanderreko presidente ordeak, Alfredo Saenzek, 12,7 milioi euroko ordainsaria izan zuen.
- Telefonikako presidentek, Cesar Aliertak, 10,2 milioi.
- Repsoleko presidentek, Antonio Brufauk, 10,1 milioi.
- Iberdrolako presidentek, Ignacio Sanchez Galanek, 9,5 milioi euro jaso zituen.

Bost hauetatik, lau Lehiakortasunarako Enpresarien Kontseiluko kideak dira. Kontseilu hortan Santanderren izenean Emilio Botinek parte hartzen du. Kontseilu hau langileak merkeago eta errezago kaleratzea suposatzen duten azken lan erreformen alde agertu da. Kontseiluak "langile kopuruan arrazoi ekonomikoen ondorioz aldaketak eman behar direnean zehaztasuna eta bizkortasuna" eskatu du. Baina kide gehienek milioi askotako bindaje edo pentsioak lortu dituzte. El Pais egunkariaren arabera, adibidez, Iberdrolako presidentek sinatu duen kalte ordainketak bost urteko soldataren balioa du. Beraz, enpresak gaur bere kargu uztea erabakiko balu, lanean egon den urte bakoitzeko 165 eguneko kalte ordaina izango luke. Santanderreko presidenteordeak, Alfredo Sanzek, 2011ren bukaeran zeukan pentsio plana 87,7 milioi eurokoa zen.

Gobernuek botere ekonomikoaren alde egiten dute lan. Horren ondorioz herritar gehienok gero eta pobreagoak gara, gutxiengo boteretsua gero eta aberatsagoa den bitartean. Horren adibidea enpresa hauetako goi karguen egoera da.

### 5. KANPO ZORRA, PRIBATUA BATEZ ERE

Espainiako Bankuak kanpo zorraren datuak argitaratu ditu. Zor publikoari buruz asko hitz egiten da, baina kanpo zorra zor pribatua da, batez ere. Eta neurri haundi batean banketxeen zorra da.

2011ko bukaeran Espainiako kanpo zorra 1,775 bilioi eurotako zen, hots, BPGd-aren %165,4a. Zor honen banaketa hauex da:

- 716.442 milioi euro (guztiaren %40,4a) bankuetxeen kanpo zorra zen. Zor honen erdia baino gehiago epe laburreko zorra zen.
- 422.729 milioi euro enpresa eta familien kanpo zorra da. Espainiako Bankuak ez du banatzen zenbateko zorra daukan bakoitzak.
- Administrazio Publikoen zorra 282.299 milioi eurotako da, kanpo zorraren %16a (BPGd-aren %26a). Administrazioen zorraren %10a besterik ez da epe laburrekoa, eta %90a epe luzekoa da.
- Gainontzekoa moneta aginpidea (175.360 milioi) eta inbertsio zuzenaren (178.357 milioi) esku dago.

Datuen arabera ekonomiaren arazoak kanpo zor publikoa oso altua delako sortzen direla esateak ez dauka zentzurik. Ezta kanpo zorra oso altua delako. Espainiar estatuko kanpo zorra, BPGd-arekiko, herri industrializatuen artean 16. postuan dago. Alemania (BPGd-aren %183,9an dago), Norvegia (%246,9a), Frantzia (%254,4a), Suedia (%262,3a), Belgika (%353,7a), Holanda (%367a) edo Britainia Handia (%451,4arekin) bezalako herriak nabarmen gaintik daude sailkapen honetan.

### 6. OSASUNEAN GASTU PUBLIKOAN, EUROPAKO AZKENAK


Eustatek (euskal estatistika institutuak) 2009ko Osasunaren Kontuak argitaratu ditu. Kontu hauetan gai ezberdinei buruz datu esanguratsuak agertzen dira. Hauen artean sektore publikoak zenbat diru bideratzen duen Osasunaren izenean jasotzen diren konzeptuetara (osasuna eta gizarte zerbitzuetako atal batzuk). Eta Europa eta munduko beste toki batzuetako informazioarekin alderatzen da.

Buletin honetan 3 ondorio azpimarratu nahi ditugu:

- EAEko osasunean gastu publikoa Europar Batasuneko azken tokietan dago. Hots, 2009an, EAEan BPGd-ren %6,6koa izan zen. EAEkoa Eustaten ikerketan aztertzen diren herrialdeetako gastu mailarik txikiena da. Espainia mailakoa baino txikiagoa da ere, hor BPGd-ren %7an dagoelako. Eta Danimarkan bideratzen den BPGd-aren %9,8a baino askoz gutxiago da. Gauza bera gertatzen da Frantzia, Alemania edo Austriarekin alderatzen badugu. Herrialde hauetan %9,2, 8,9 eta 8,6a bideratzen dute partida hauetara hurrenez hurren.
- EAEn diru publikoarekin betetzen den osasunaren gastuaren portzentaia beste leku askotakoa baino txikiagoa da. Politiko eta komunikabide gehienek behin eta berriro errepikatzen dute gure instituzioek diru publikoarekin osasunean betetzena Europar Batasuneko beste tokietakoa baino altuagoa dela. Hau gezur borobila da. Hots, EAEn osasunean gastatzen diren 100 eurotik diru publikoarekin 75,1 finantzatzen

dira (%24,9a, beraz, diru pribatuarekin). Portzentai hau altuagoa da Danimarkan, Norbegian, Britainia Haundian, Suedian edo Islandian, %80a gainditzen dutelarik, edo beste tokietan, Austrian, Alemanian, Frantzia edo Italian bezala.

- Osasunean onartutako murrizketek osasun sistemaren privatizazioan beste urrats bat suposatzen dute. Estatu Batuetako adibidea oso esanguratsua da. Bertako sistema garestia eta ezeraginkorra da, milioika pertsona estalduratik at uzten dituelarik. Estatu Batuetan Osasunean gastua BPGd-aren %17,4koa da, Eustaten arabera. Hau astakeri bat da. Beraien gastu publikoa osoaren erdia baino gutxiago da, baina BPGd-aren %8,3koa da. (gainontzekoa, %9,1a, pribatua da).



### 7. PROPOSAMENA: ERREFERENDUMA

Joan den otsailean irlandar Gobernuak erreferenduma antolatzea erabaki zuen europar tratatuaren edukien aurrean.

Ez da Irlandan horrelako proposamen bat egiten den lehen aldia. 2008an irlandarrek

Lisboako Tratatuaren ezeztatu zuten, nahiz eta hurrengo urtean testuaren aldaketa baten ondorioz onartu zuten. Berdina gertatu zen 2002an Nizako Tratatuarekin.

Erreferendumaren bideak aukera ematen dio biztanleriari demokratikoki adierazteko. Demokrazia, gure kasuan, lau urtero botoa ematea da, beste inongo partehartzerik eskeini gabe. Ez dago egunerokotasunean jendearen partehartzea bideratzen duen mekanismorik.

Gaur egun ezagutzen ditugu aukera hau ona dela bermatzen duten zenbait kasu. Esaterako, Islandiako kasua. Herrialde honek inolaz ere ordain zitekeen zorra metatu zuen britainiar eta holandarren alde. Hasiera batean, gobernuak zorra ordaintzea onartu zuen, herrialdea finantziar esklabotasunera bultzatuz. Orduntxe izan zen erreferenduma deitzea erabaki zuten momentua. Jendearen presioak bultzatuta egin zen, mobilizazioa eta asanbleen bitartez. Honela bada, zorra ordainezina zela onartzea lortu zuten eta zorraren eragileak errudun deklaratu zituzten (nahiz eta presidente ohia absolbitua izan den, apitua izan da). Herrialdeak zorraren ordainketa onuragarriagoa lortu zuen, nahiz eta gaur egun akordio horren aurka jarraitzen duen.

Suitzan, erreferendumak demokrazia zuzenaren elementua dira. Urtean lautan gai desberdinen inguruko botazioak antolatzen dituzte.

Italian, 2011ko ekainak 11 eta 12 an, lau erreferendum antolatu ziren. Jendearen ekimenek bultzatuta, %50eko partehartzea gainditu zuten. Botazio hauetan, zentral nukelarren edo uraren pribatizazioaren aurka

eman zen botua.

Mobilizazioa beharrezkoa da dagozkigun gaitan erabakiak hartzeko aukera izan dezagun. Kapitalismoakateak ixten dizkio erabakiak hartzeko prozesu demokratiko orori. Aberastasunaren banaketa desberdinak botere politikoa ere era desberdinean banatzea dakar; honela "dirudunak" gai dira politikoak kontrolpean izaten. Honen adibide argia Greziako erreferenduma da. Ordungo lehen ministroak erreferenduma deitu zuen jendeak Europako bigarren dirulaguntzaren inguruan erabakia har zezan. Europar Batasunak, Merkel eta Sarkozy buru zituelarik, NDF eta EBZ-rekin batera sekulako presioa eragin zuten beraien interesen alde eta Papandreuk prozesua bertan behera utzi behar izan zuen.

Horregatik, exijitu behar dugu jendeak erabakitzeko eskubidea izatea. Beharrezkoa da demokrazia partehartzailea eragitea eta ordezkari politikoei gogorarazi behar diegu zein den demokraziaren oinarrizko printzipioa.